

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

50/2021 Foru Agindua, otsaileko 19koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programen araudiari

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legean eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan (Eskola Kirolari buruzkoa) ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteko programak egin, onetsi eta gauzatzea, bi xedapen horietan jasotzen diren jarraibideen arabera.

Arabako Foru Aldundiaren eremuan, kirol arloko eskumena duen sailak bere gain hartzen du eskola kiroleko programak egin, onetsi eta gauzatzea, Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kirolari buruzko urriaren 28ko 21/2020 Foru Arauaren 5.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta aipatutako saileko foru diputatuari dagokio haren azken xedapenetako lehenengoan ematen zaion gaikuntzaren indarrez haiek garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eskumena.

Hala, adierazitako aginduak ikusirik, eta dauden beharrianak aintzat hartuz, foru agindu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programak jasotzen dituen araudia ezartzea, horiek helburu hauetara bideratuz: haurren eskola-hezkuntza integrala osatzea, haien nortasunaren garapen harmoniatsua, eta adin aurreratuagoetan kirola egiten jarraitzeko bide ematen duten gorputz eta osasun baldintzak eta heziketa lortzea.

Foru aginduaren egiturari dagokionez, haren I. tituluan jasotzen dira Arabako eskola kiroleko programei aplikagarriak zaizkien xedapen orokorrak. Haietan, gure lurralde historikoko errealtatea kontuan izanik, kontzeptu hauek artikulatzen dira, besteak beste: eskola kirola, horren printzipio arautzaileak, ibilbideak, garatu beharreko jarduerak eta parte hartzeko egiturak. Halaber, urtero onetsi beharreko araudi baterako uzten da kategoriak, adinak, aplikazio eremuak eta programa desberdinen iraunaldiak ezartzea.

Xedapen orokorrak ezarri ondoren, II. eta III. tituluetan kirol partaidetzako ibilbideko jarduerak jasotzen dira, baita errendimenduaren hastapenetako jarduerak ere, urriaren 28ko 21/2020 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kirolarenak, II. tituluan ezarritako zuzentarauekin bat etorritik.

Zehazkiago, II. tituluan jasotzen dira kirol partaidetzako ibilbidean egin daitezkeen jarduerak, bai hastapen alderdian, bai aisia alderdian eta kirolen edo mugimendu olinpiarraren historia eta garapenarekin loturiko kirol eta kultura alderdian, helburuak, jarduera horiek egin ditzaketen entitateak eta horietako bakoitza zein kategoriatara zuzenduta doan ezarritik. Azkenean, bigarren atalak Arabako eskolarteko kirol jokoaren arauak artikulatzen da.

III. tituluan, eskema berari jarraituz, errendimenduaren hastapenetako ibilbidean jasotzen diren jarduerak arautzen ditu, detekzio jarduerak, teknifikazio jarduerak eta errendimenduaren hastapenetako lehiaketak bereiziz.

Urriaren 28ko 21/2020 Foru Arauaren III. tituluan gaituta, foru agindu honek bere IV. tituluan arautzen du eskola kiroleko kanpaina desberdinetan parte hartu nahi duten entitate, talde edo elkarten izen-ematea, bai eta egoera berezietan lehiaketa ofizialetan parte hartzeko baimenak eta federazio lizentzien izapidetzea ere.

Eskola kiroleko programan egiteko diren jarduerak garatzeko estaldura teknikoa emateko helburuaz, V. tituluan irizpideak finkatzen dira irabazteko xederik gabeko zenbait entitatek lagundu dezaten eskola kiroleko kanpainako jarduerak garatzen, eta xedatzen du jarduketara esparrua hitzarmen kolektiboetan jaso behar dela.

Prozeduraren ikuspuntutik, VI. tituluan erregularizatzen dira Arabako eskolarteko kirol jokoe-tako neurketa edo partidak jokatzeko egin beharreko joan-etorriak, bai Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen Sailak jarritako garraibideen bitartez, bai parte hartzen duten entitateen bidez baliatuz. Halaber, programatik kanpo geratzen diren joan-etorriak ere jasotzen dira.

Ondoren, foru agindu honetako azkeneko tituluan, VII.ean alegia, arautu egiten dira kirol jarduerak antolatzeke eta horietan parte hartzeke baimenak emateke prozedura, eta hiru ataletan jasotzen dira eskola-kiroleko programaren barruan ez dauden jarduerak antolatzeke eta horietan parte hartzeke baimenak, bestelako baimenak eta administrazio ebazpenekin loturiko kontuak.

Azkenean, foru agindu hau eskuordetzeari eta indarrean jartzeari buruzko ohiko xedapeneekin bukatzen da.

Agindu hau izapidetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), jasotako araupetze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak.

Hala, azaldutako aurrekarietan, nahikoa arrazoitu da Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programak arautu beharra dagoela eta, gainera, jarduera arauemaile proportzionatua da, lortu nahi den helburua (kanpainaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzea alegia) erdiesteko ezinbesteko gutxienez mugatzen baita. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, epe barruan indarrean dauden xede bereko ebazpenak izapide horien mende jarri direnez, posible da jendaurrean jartzeke izapidea ez guzatztea. Edonola ere, onetsi bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Kontuan eduki behar da, baita ere, xedapen arauemaile honen izapidetzean kontuan hartu dela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edukia, Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren araudian ondoko gai hauen bultzada deliberatua jasotzeko: tratu berdintasuna, aukera berdintasuna, dibertsitate eta desberdintasunaren errespetua, ekintza positiboen sustapena, sexuaren araberako rol eta estereotipoen deuseztapena, ordezkariak orekatua eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzeta. Hala, eskola kirolak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko du egiten diren ekintza guztietan, gaur egun kirolaren eremuan dauden genero etenak txikituz joateko helburuaz. Horrek berekin dakar neskek kirol jardunean parte har dezaten sustatzea, bereziki haien presentzia txikiagoa den diziplinetan, eta emakumeen presentzia orekatua ziurtatzea eskola kiroleko programen barruan dauden jardueretan esku hartzen duten teknikari, epaile eta arbitroen multzoan. Halaber, oreka bermatu beharko da baliabideak (kirol instalazioak, ordutegiak, baliabide pertsonal eta materialak, diru baliabideak, sariak, etab.) eskuratzeari dagokionez, arreta berezia jarri kirol jardunean gertatzen den edozein motatako sexu jazarpenera, bereizkeria eta sexuarengatiko jazarpenera detektatzeko eta haren kontra borrokatzeke.

Horregatik, Arabako Foru Administrazioako Kontsulta Batzordeari entzun, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

**I. TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Eskola kirolaren esanahia**

Bat etorri ekainaren 11ko 14/1998 Legean (Euskadiko Kirolaren Legea) eta urriaren 28ko 21/2020 Foru Arauan (Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kirolarena) xedatutakoarekin, eskola kiroltzat hartzen da derrigorrezko eskolatze aldian eskola ikasleek eskolarik gabeko orduetan egiten duten kirol jarduera antolatua.

Hortaz, antolatutako kirol jarduerak eskaintzen dira eskolako hezkuntza integrala osatzearren, nortasunaren garapen harmoniatsua eragitearren, eta eskola utzi osteko urteetan kirola jarraitasunez egiteko aukera emango duten gorputz eta osasun egoera eta prestakuntza lortzeko iristeko modua ematearren.

2. artikulua. Eskola kirola arautzen duten printzipioak

Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko jardueren diseinuan, plangintzan eta garapenean, ondoko printzipio hauek hartu behar dira:

a) Eskola kirola, ahal dela, kirol anitzekoa izango da, eta ez lehiaketara bakarrik bideratua. Horrela, ikasle guztiek hainbat kirol modalitate ezagutu eta garatuko dituzte, nor bere borondate, gaitasun fisiko, jarrera eta adinaren arabera.

b) Eskola kirolak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko du egiten diren ekintza guztietan, gaur egun kirolaren eremuan dauden genero etenak txikituz joateko helburuaz. Horrek berekin dakar neskek kirol jardunean parte har dezaten sustatzea, bereziki haien presentzia txikiagoa den diziplinetan, eta emakumeen presentzia orekatua ziurtatzea eskola kiroleko programen barruan dauden jardueretan esku hartzen duten teknikari, epaile eta arbitroen multzoan. Halaber, oreka bermatu beharko da baliabideak (kirol instalazioak, ordutegiak, baliabide pertsonal eta materialak, diru baliabideak, sariak, etab.) eskuratzeari dagokionez, arreta berezia jarriz kirol jardunean gertatzen den edozein motatako sexu jazarpena, bereizkeria eta sexuarengatiko jazarpena detektatzeko eta haren kontra borrokatzeko.

c) Administrazio publikoak sustatu behar du eskola kirola ikastegiaren hezkuntza proiektuetan eta ikastegiko urteko planean integratzea. Administrazio publikoei dagokien sustapen lan hori garatzerakoan, eskola kirolaren garrantzia nabarmenduko da, hezkuntza prozesuaren osagai eta kirol ohitura egokiak eskuratzeko oinarrizko prozesua den aldetik, kirol modalitate guztien etorkizuna bermatzeko.

Hala, eskola adineko kirol jarduna, funtsean, ikastegien bitartez egituratzen da, ikasleen gurasoen elkarrekin lankidetzarekin eta ikastegiaren gorputz hezkuntzako sailaren parte-hartze aktiboarekin. Halaber, klubak, kirol taldeen, federazioen, elkarrekin eta kirol fundazioen partaidetza ere baimenduko da. Kirol federazioen ardura izango da —haiena funtsean— kirol eskolako lehiaketa programak antolatu eta egikaritzeko ardurak teknikoak eta lankidetzak ematea.

Eskola kirolak bultzatu behar du eskola ikasleengan euskara normalizatzea eta erabiltzea, EAEko berezko hizkuntza baita, bat etorri euskararen normalizazioari eta haren erabilera sustatzeari buruz gaur egun indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin.

d) Eskola kirolak balio hauek sustatu behar ditu: elkartasuna, konpromisoa, talde lana, laguntasuna, berdintasuna, indarkeriarik eza, bereizkeriarik eza eta jatorri, arraza, identitate edo sexu orientazioen dibertsitatearen errespetua. Horretarako, administrazio publikoak balio horiek integratu eta saritzen dituzten proiektu eta lehiaketak sustatuko ditu, eta balio horien kontrako jarrerak galarazteaz arduratuko da.

e) Eskolako kirol jarduna irisgarria izan behar da pertsona guztientzat, eta bereziki beren izaera fisiko edo mentalagatik eragozpen gehien izan dezaketentzat. Horretarako, sentsibilizazio kanpainak eta kirol irisgarria eta inklusiboa eskola kirolaren funtsezko osagaiak izango dira.

Beharrian bereziak dituzten ikasleak hezkuntza sisteman integratzea kirol eremuan ere gauzatu behar da, eskolako kideekin batera kirol jardunak egiteko aukera emanez, hala egin daitekeen neurrian. Helburu horretarako, araudiaren edukia ikasle horien beharrianetara egokituz joango da, haien integrazioa egiaz gauzatu dadin.

3. artikulua. Eskumena

Eskola kiroleko programak egitea, onestea eta gauzatzea, baita haien urteko berezitasunak ere, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren ardura da.

Sail horrek, betetzen baldin badira erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak, bai-mena ere eman ahal izango du eskola kiroleko programetan jasotzen ez diren kirol lehiaketak antolatzeke, federazio lehiaketetan parte hartzeke, eta zenbait kirol modalitatetan teknifikazio unitateak garatzeko.

4. artikulua. Kategoriak, jaiotze urtea eta aplikazio eremua

Uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak (Eskola Kirolari buruzkoa) 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, urtero eskola kirola antolatzen den adinak, kategoriak eta aplikazioko lurralde eremuak ezarriko dira urtero.

5. artikulua. Ibilbideak eta kirol jarduerak

Uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak (Eskola Kirolari buruzkoa) ezarritakoaren arabera, eta kontuan edukita Arabako Lurralde Historikoko errealitatea, honako hauek dira lurralde honetan garatuko diren ibilbideak eta jarduerak:

IBILBIDEA	JARDUERAK
Kirol partaidetzako ibilbidea	Hastapen jarduerak Aldatutako lehiaketak: Arabako eskolarteko kirol jokoak Jolas jarduerak Kultura eta kirol jarduerak
Errendimenduaren hastapenetako ibilbidea	Detekzio jarduerak Teknifikazio jarduerak Errendimenduaren hastapenetako lehiaketak

6. artikulua. Partaidetza egiturak

1. Eskola ikasleek egiten dituzten jarduerak partaidetza egitura hauen bitartez garatu beharko dira:

a) Ikastegiak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak onartuak badira eta, egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukita, derrigorrezko hezkuntzari dagokion urratseko irakaskuntza ofiziala ematen dutenak.

Ikastegiek berek zuzenean eman dezakete izena, edo berekin lotura duten irabazteko xederik gabeko entitateen bitartez (ikasleen gurasoen elkarte, kirol elkarte, klub, eskola kirola kudeatzeko egitura eta abarren bitartez), denak ere legez eratuak badira eta Eusko Jaurlaritzaren dagokien erregistroetan erregistraturik badaude. Ikastegiaren gorputz heziketako sailaren partaidetza aktiboa izango dute.

Ikastegiek eskualdeko kirol klubekiko lankidetzak bideratu ahal izango dute, hartara, lehenbiziko adinetan, kirol klubetako zerbitzu teknikoaren parte hartzea izan dadin eskola ikasleak kirolaren hastapenetan gidatzeko orduan, ikastegiak ezarritako hezkuntza helburuekin bat etorritik.

Era berean, ikastegiak lagundu egin behar dute eskolako neska-mutilek kirol klubetan sartzeko aukera izan dezaten adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, bermea izan dadin hartara eskolaratze aldia amaitutakoan jarraipena izango duela kirolaren praktikak, dela kirol federatuan, dela jolas kirolean.

b) Irabazteko xederik gabeko entitateak (klubak, kirol taldeak, elkarteak, federazioak, kirol fundazioak, etab.), behar bezala eraturta eta Eusko Jaurlaritzaren sail egokietan erregistratuta badaude eta egoitza Arabako Lurralde Historikoan badute, berariaz baimenduko diren kirol modalitate eta kategorietan.

Kirol federazioen ardura izango da —haiena funtsean— kirol eskolako lehiaketa programak antolatu eta egikaritzeko aholkularitza tekniko eta lankidetzaren ematea. Kirol federazioek ezingo dute izapidetu ez jaulki federazio lizentziarik denboraldi bakoitzean ezartzen diren urteetan jaiotako eskola ikasleentzat, salbu eta, aurretiaz eskaera eginda, Arabako Foru Aldunditik horretarako baimen espresua lortzen badute.

c) Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak edo beren kudeaketa organoak, legez eratuak eta beren helburuen artean kirolaren sustapena dutenak. Toki entitateek, funtsean, programan lagunduko dute udalaren kirol ekipamenduak ikastegiei eta Arabako kirol federazioei lagaz eskola kirolaren programa behar bezala gauza dadin, bereziki eskola kirolean aritzeko instalazio nahikorik ez dagoenean, partaideen kopurua handiegia delako edo kirolgune espezi-fikoak behar direlako.

2. Eskola kiroleko programetan parte hartzen duen entitate orok hura gidatzen duten printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartu beharko du, baita aplikagarria den araudian ezarritakoa betetzeko ere.

3. Eskola kiroleko kanpainan inskribaturiko entitate orok aseguruaren berariazko ezaugarriak ezagutarazi beharko dizkie parte hartzaile guztiei, eta bereziki adingabekoen legezko ordezkariari, batez ere honako datu hauek aipatuz: aseguruaren estaldura sistema, izen-ematea egin duten entitatearen antolamendu ezaugarriak, eta egiten duten kirol jarduera erabat ezagutzeko interesgarriak izan daitezkeen datu guztiak.

4. Entitateetan zerbitzuak eman eta adingabekoekin harremanetan egon ohi diren lan kontratuko langile guztiek, baita boluntario edo laguntzaile guztiek ere, frogatu behar dute ez dardela epai irmoz kondenatuta sexu askatasunaren eta indemnitatearen kontrako delituengatik, horien barruan sartzen direlarik sexu eraso eta abusua, sexu jazarpena, sexu exhibizionismoa eta probokazioa, prostituzioa, sexu esplotazioa eta adingabekoen galbideratzea, baita gizakien salerosketa ere, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Adingabekoen Babes Juridikoarena) 13.5 artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Sexu Gaizkileen Erregistro Zentralak egindako ezezko ziurtagiria exijituz egiaztatuko da hori. Lehenengo ezezko ziurtagiria aurkeztu eta gero aldaketarik izatekotan, entitatean zerbitzuak ematen dituzten langileak behartuta daude horren berri ematera.

5. Parte hartzen duten entitateek bultzatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin eskola kiroleko programen barruan dauden jardueretan esku hartzen duten begirale, entrenatzaile, epaile eta arbitroen artean. Neskek kirol profesionalean edo erdi-profesionalean ari diren emakumezko erreferente hurbilak izateak haiek kirol jardunean jarraitzearen alde egiten du. Lan baldintzei dagokienez, entitateek emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatu behar dute, neskekin lan egiten duten langileei eta mutilekin ari direnei ordainsari, ordutegi eta baldintza berdinak eskaintzeko zaintzeaz gainera. Entitateek bultzatuko dute orobat eskola kiroleko programan parte hartzen duten langileak berdintasunaz eta baterako hezkuntzaz prestatuta egotea. Parte hartzen duten entitateei printzipio hauen integrazioa errazteko, Arabako Foru Aldundiak haien eskura jartzen du "Arabako eskola kirolean genero ikuspegia sartzeko gida" (www.araba.eus webgunean eskuratu daiteke).

7. artikulua. Eskola kiroleko programen iraunaldia

Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailak ezarriko du urtero eskola kiroleko programen iraunaldia.

Aurretik esandakoarekin ere, beste hasiera eta amaiera egun batzuk dituzten jarduera espezi-fikoak antolatu edo baimendu ahal izango dira, foru agindu honen VII. tituluan ezarritakoarekin bat etorritik.

8. artikulua. Aseguruak

1. Arabako Foru Aldundiak honako aseguru mota hauek egingo dizkie eskola kiroleko programetan aurreikusitako kirol jardueretan parte hartzen dutenei:

a) Osasun laguntzako aseguruak, parte hartzaileak beste arrazoi batengatik osasun laguntzarako eskubiderik ez badu. Aseguru horren onuraduna izan ahal izateko, kirol jarduna hasi baino lehenago eskatu beharko du, eskaera hori arrazoituz eta dokumentatuz.

b) Erantzukizun zibileko aseguruak.

c) Galera anatomiko edo funtzionalengatik edo, aseguru legeriak onartzen dituen kasuetan, parte hartzen duenaren heriotzagatik kalteak ordaintzeko aseguruak.

Eskola kiroleko kanpainen parte hartzeko edozein sistemaren barruan sartzen diren pertsona guztiek aseguru poliza bat izango dute, aurretik aipatutako b) eta c) apartatuetan eskatutako estaldura bermatzen diena.

Eskola kiroleko kanpainen izena emandako entitateek nahitaez jakinarazi beharko dute jardueretan egindako aldaketa oro, bai eta jardueren bukaera ere, eta, hala balegokio, orobat jakinarazi beharko dituzte jarduera horietan izena emandako pertsonen altak eta bajak, parte-hartzaileen datu baseak eguneraturik edukitzearren eta datu base horiek eskola kirola babesten duen aseguruaren eskura izan daitezen.

2. Toki entitateek bermatu behar dute eskola kirolean parte hartzen duten gainerako entitateek (ikastegiak, guraso elkarteak, etab.) eskaera egiteko garaian beharrezkoak eta nahiko diren aseguruak edukitzea, jarduera garatzean edozein motatako gorabeherak estaltzeko modua ematen dutenak. Haiek aurreko apartatuan aurreikusten diren estaldura berdina hartuko dituzte barnean.

9. artikulua. Datu pertsonalak babestea

Parte hartzen duten entitate eta pertsonen inskripzioaren bidez lortutako datu pertsonalak tratatu eta "Kirolariak" izeneko tratamendu jarduerari erantsiko zaizkio, zeinaren kudeaketa Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuari baitagokio. Horien helburuen artean, eskola kiroleko programako inskripzioak eta jarduerak kudeatzea dago. Datu pertsonalen tratamenduan honako hauetan ezartzen dena aplikatuko da: batetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoak babestekoa dena datu pertsonalak tratatzeari eta datuen zirkulazio libreaki dagokionez.

Eskola kiroleko programa honen esparruan emandako informazioa ez da tratatuko aurreko paragrafoan zehaztutakoa ez den inolako helburutarako.

Arabako Foru Aldundiak bermatuko du entitateek eta parte-hartzaileek emandako datuen konfidentziasuna, eta haiek ez dira komunikatuko legez gaitutako kasuetatik kanpo. Halaber, segurtasun neurri jakinak ezartzen dira (DBEOren 24. art.), urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuarekin bat etorritik identifikaturiko balizko arriskuen aurrean. Errege dekretu horren bidez, administrazio elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen da.

Eskola kiroleko programa honetan izena emandako entitateek, baita V. tituluaren deskribatzen diren entitateek ere, Arabako Foru Aldundia titularrak dituen datuen tratamenduaren ardurak izango dute programa hau indarrean dagoen bitartean, eta programa horren helburuetarako soilik. Zeregin horretarako, aintzat hartuko dituzte Kirol Zerbitzuak ezartzen dituen jarraibideak, atal hori baita "Kirolariak" izeneko tratamendu jardueraren kudeatzailea. Jarduera hori Arabako Foru Aldundiaren jarduera tratamenduen erregistroaren osagai da, zeinaren arduraduna Foru Gobernu Kontseilua baita.

Halaber, izena emandako entitateek eta entitate laguntzaileek ez dituzte aplikatuko ez erabiliko datu horiek beste helburu batzuetarako, eta ez dizkiete komunikatuko beste pertsona batzuei, ez eta mantentzeko ere.

Bereziki, entitate horien inskripzioa eta lankidetzak berekin dakar ondoko eginbehar hauek bete daitezzen zaintzea eskola kiroleko programako kanpainak garatzean:

– Parte hartzen dutenei (edo haien legezko ordezkari, adingabeok baldin badira) beharrezko informazioa eskaintzea eskola kiroleko indarreko programarako inskripzioaren bidez emandako datu pertsonalen tratamenduaren helburuari buruz, eta haien baimena eskatzea Arabako Foru Aldundiaren “Kirolarien” tratamendu jardueran aurreikusitako helburuaz tratatzeko.

– “Kirolarien” datu pertsonalak tratatzeko jardueraren arduradun gisa izenpetu beharreko kontratu hizpaketak betetzea, zeinak onetsiko baitira entitatea eskola kiroleko programari atxikitzen zaion garaian. Hizpaketa horien artean dago segurtasuneko neurri teknikoak eta antolaketa neurriak hartzeko eginbeharra “Kirolarien” datu pertsonalak tratatzeko Arabako Foru Aldundiaren jarduerarako identifikatutako eta exijitutako arrisku mailaren aurrean, baita tratatzen den informazioaz ere.

10. artikulua. Publizitatea

Eskola kiroleko programei ahalik eta zabalkunde handiena emango zaie bide grafikoan eta partaidetza egiturentzako bana-banako jakinarazpenen bitartez.

Eskola kirolarekin loturik dagoen publizitateak eta dokumentazioak hizkera eta irudiak era ez-sexistan eta berdintasunez erabiliko ditu, eta gainera Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

11. artikulua. Beharrezko agiriak

1. Eskola programan izena ematen duten entitate guztiak behartuta egongo dira arau honetan ezarritako baldintzak eta gai honekin loturik urtero garatzen direnak edo kasuan kasuan ezartzen direnak onartzera, eta onetsitako programa edo proiektua ikuskatzeko, jarraitzeko eta egiaztatzeko kirolaren arloan eskumena duen sailak izendatutako pertsonen presentzia onartzera.

Horretarako, izena emandako entitateak behartuta daude egindako jarduerekin zerikusia duten eta kirol arloan eskumena duen sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak aurkeztera.

2. Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako kirol entitateren batek, eskatutako baldintzak (kategoria, kirol modalitate espezifikoa, etab.) beteta, bere kokaleku geografikoagatik edo kirol tradizioagatik, parte hartu nahi badu Arabako Foru Aldundiak antolatutako eskola kiroleko programaren barruan programatutako jardueretan, hala adierazi beharko dio, idatziz, Foru Aldundi honetako Kirol Zerbitzuari. Gainera, nahi eta nahi ez, haren lurralde historikoan eskola kirolaren ardura duten organoen baimena aurkeztu beharko du.

3. Egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoan duen kirol entitateren batek, eskatutako baldintzak (kategoria, kirol modalitate espezifikoa, etab.) beteta, bere kokaleku geografikoagatik edo kirol tradizioagatik, parte hartu nahi badu Arabako Foru Aldundiak antolatutako eskola kiroleko programaren barruan programatutako jardueretan, hala adierazi beharko dio, idatziz, Foru Aldundi honetako Kirol Zerbitzuari. Gainera, nahi eta nahi ez, haren probintzian edo autonomia erkidegoan eskola kirolaren ardura duten organoen baimena aurkeztu beharko du.

4. Eskola kirolaren arloan indarrean dauden xedapenak ez badira betetzen, zehapen edo administrazio erantzukizuna eskatu ahal izango da ekainaren 11ko 14/1998 Legean, Euskadiko kirolarenean, eta hura garatzeko araudian ezarritakoan oinarrituz.

5. Eskola kiroleko kanpainan izena eman duten entitateak behartuta daude egiaztatza, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiriaren bidez, beren antolamenduaren eremuan adingabeekin lanean diharduten profesionalak eta boluntarioak ez daudela kondenatuta epai irmo bidez sexu askatasunaren eta sexu indemnitatearen aurkako delituengatik, urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Adingabearen Babes Juridikoarena) 13.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

II. TITULUA**KIROL PARTAIDETZAKO IBILBIDEKO JARDUERAK****12. artikulua. Helburua**

Kirol partaidetzako ibilbidearen helburu nagusia da eskola ikasleek kirola eta gorputz ariketa egitea, era bateko eta besteko kirol modalitateak ezagutzea, eta kirola egiteko ohitura eta biziera osasungarri eta aktibo bat hartzea.

Horretarako, parte hartzen duten entitateek diseinatzen duten jarduera eskaintzak jolas eta aisia-izaera lehenetsi beharko du eta erantzuna eman beharko die neska-mutilen interes eta beharriaz, haiek parte hartzea motibatuz. Garrantzitsua da eskaintza horrek kirol jardueran sexuen bereizketari murrizten laguntzea, sexu batentzako eta bestearentzako egokiena den kirol eta gorputz jarduera motarekin loturiko genero estereotipoak hautsiz. Gainera, ibilbidea diseinatzean ahaleginak egingo dira nerabezaroaz gero kirol jardunari uztea galarazteko, batez ere neskei dagokienez. Izan ere, nesken kirol-uzte eta sedentarismo tasak mutilenak baino handiagoak dira, alde esanguratsuz.

13. artikulua. Jarduerak

Ibilbide honen barruan sartuko dira hainbat kirol mota irakasteko jarduerak, lehiaketetan parte hartzearekin loturik ez dutenak, haietan parte hartu nahi duten ikasle guztientzat eskaintzen badira, kirola egiteko beren gaitasuna dela-eta inolako murrizketarik gabe.

Halaber, izena emandako ikasleen hezkuntza integrarean laguntzen duten kirol jarduerak egingo dira, hezkuntza aldetik nahiz aisia aldetik kirol prestakuntzaren aberasgarria izateko moduan.

Era berean, eskema selektibo huts batetik kanpoko kirol lehiaketak egingo dira, haiek hezkuntza eta jolas izaera nabarmenaz pentsatuz, parte-hartzaileen kopuruaren aldetik inolako mugarik jarri gabe. Jarduera horiek arautzean ikasle guztiek hainbat kirol modu ziklikoan eza-gutu eta ezagutzeko eskubidea izatea bermatzeko ahalegina egiten da.

Toki erakundeek, Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan emandako berariazko kontsiderazioen arabera, beste era bateko partaidetza jarduerak sustatu ahal izango dituzte, batez ere ikastegientzako.

LEHENENGO ATALA**HASTAPEN, AISIA ETA KIROL ETA KULTURA JARDUERAK****14. artikulua. Betebeharrak**

Atal honetan jasotzen diren jardueretarako inskribatutako talde edo kirolariek ezin dezakete parterik hartu inolako lehiaketa ofizialetan, kirol modalitate horretarako, Arabako eskolarteko kirol jokoan barruan, eta nahitaezkoa izango da jarduerak eskola orduetatik kanpo egitea.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, kirolaren arloan eskumena duen sailak hastapenetako jarduera guztien baterako informazioa emango du. Hartan, jarduera bakoitzaren ezaugarriak nahiz haietan parte hartzeko arauak adieraziko dira. Hala ere, eta kirol modalitate bakoitzaren berezitasunei erreparatuz, ikasturtean zehar informazio gehiago emateko zirkularrak bidali ahalgo dira.

15. artikulua. Kirol hastapenetako jarduerak

Talde honen barruan jarduera hauek sartzen dira:

a) Kirol anitzeko jarduera.

Gorputz hezkuntza, kirol mota jakin bat praktikatzeko sartu gabe. Jarduera horietan, lehentasun handiagoa ematen zaio mugikortasun jardunari eta trebetasunak eskuratzeari, kirol jakin batean trebatzeari baino. Hainbat kirol egiten hastea, ikasturtean zehar.

– Entitateak: ikastegiak.

– Kategoriak: benjamin aurrekoak, benjaminak eta kimuak.

– Baldintzak:

• Lurraldeko talde guztiek eskola kiroleko programan izena eman beharko dute.

- Mota honetako jarduerak egiten dituzten ikastegiak urtero proiektu edo programa bat aurkeztu beharko dute denboraldi bakoitzean horretarako diseinatzen den dokumentuan, adin talde horietakoekin egin beharreko jarduerak zehaztuz.

- Jarduera hau bi modutan planifika daiteke:

1. Kirol anitzeko A jarduera: asteko saioetako bakoitzean, haietako bakoitzerako zehaztutako edukiak lantzen dira. Eduki/modalitate bakoitzari eskainitako saio kopurua berdina da kasu guztietan. Saioak aste barruan egingo dira eta asteburuetan ez da lehiaketarik egongo. Talde horiek Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek antolatutako topaketetan parte hartu ahalgo dute.

2. Kirol anitzeko B jarduera: kirol bakarreko modalitate bat proposatu ahal izango da, hartan edukiak gainerako jarduerak baino gehiago lantzen baldin badira. Lehentasunezko modalitate horretarako planteatutako saio kopurua ezingo da ikasturteko saio guztien ehuneko 50 baino gehiagokoa izan. Aukera honetan kirol modalitate bera lantzen duten beste talde batzuekin topaketak egin ahal izango dira. Aukera hori hilean larunbat batean egin ahalgo da. Talde horiek Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek antolatutako topaketetan parte hartu ahal izango dute.

- b) Kirol bakarreko jarduerak (lehiak bestelakoak).

Kirol modalitate bakarra egingo da eskola kiroleko kanpainak irauten duen aldi guztian:

- Entitateak: ikastegiak (guraso elkarteak...) eta irabazteko xederik gabeko entitateak (klubak...).

- Kategoriak: benjamin aurrekoak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

- Baldintzak:

- Lurraldeko talde guztiek eskola kiroleko programan izena eman beharko dute.

- Jarduera horiek ez dira lehentasunezkoak izango benjamin aurrekoen eta benjaminen kategorietan, erakunde publikoekin lankidetzarik badago.

- c) Hastapen ikastaroak.

Kanpaina honen barruan, Kirol Zerbitzuak zenbait hastapen ikastaro eskainiko ditu. Ikastaro hauen helburua da ikastaroa eskaintzen den modalitatean izena eman ez duten Arabako eskola ikasleek hainbat kirol modalitatekin hasierako harremana izatea ahalbideratzea. Ikastaro horiek Arabako kirol federazioetako langileek zuzenduko dituzte, eta haietako bakoitzaren datuak kanpaina zehar zehaztuko dira.

16. artikulua. Aisia-jarduerak

Kirol irakaskuntzako jarduerak dira eta beraien helburuak trebetasuna lehiak kanpoko ohiko praktikaren bidez hobetzea eta lehiak kanpoko kirol praktika moderatuaren bidez ohiko kirol aztura osasuntsuak lortzea dira.

Talde honen barruan jarduera hauek sartzen dira:

- a) Jolasezko kirol jarduerak.

- Entitateak: ikastegiak (guraso elkarteak...) eta irabazteko xederik gabeko entitateak (klubak, kirol taldeak eta federazioak...).

- Kategoriak: benjamin aurrekoak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

- Baldintzak:

- Lurraldeko talde guztiek eskola kiroleko programan izena eman beharko dute.

- b) Oinarri erritmiko-musikala duten jolas eta aisia-jarduerak (lehiak bestelakoak).

Barnean sartuko dira eskola kiroleko kanpainak irauten duen aldi osoan egin beharreko guztiak:

- Entitateak: ikastegiak (guraso elkarteak...).

- Kategoriak: Haurrak eta kadeteak.

– Baldintzak:

- Jarduera horiek ikastegiaren esparruan egingo dira, salbu eta Kirol Zerbitzuari jakinarazi beharreko salbuespenak badaude.
- Lurraldeko talde guztiek eskola kiroleko programan izena eman beharko dute.
- Mota honetako jarduerak egiten dituzten ikastegiek urtero proiektu edo programa bat aurkeztu beharko dute denboraldi bakoitzean horretarako diseinatzen den dokumentuan, adin talde horietakoekin egin beharreko jarduerak zehaztuz.

17. artikulua. Kultura eta kirol jarduerak

Kirol eta kultur jardueratzat hartuko dira kirolaren historia eta garapenaren edo mugimendu olinpiarraren edo eskola kirolaren inguruko kultura jarduerak, edo eskola kirolarekin loturiko beste edozein jarduera.

– Entitateak: ikastegiak (guraso elkarteak...) eta irabazteko xederik gabeko entitateak (klubak, kirol taldeak eta federazioak...).

– Kategoriak: benjamin aurrekoak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

– Baldintzak: Lurraldeko talde guztiek eskola kiroleko programan izena eman beharko dute.

18. artikulua. Iraupena, adina eta kategoriak

Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen Sailak urtero ezarriko ditu kirol hastapenetako jarduerak, aisia-jarduerak eta kirol eta kultura jarduerak egingo diren egunak, adinak eta kategoriak.

Jarduera hauek gutxienez bost hileko eta gehienez zortzi hileko iraupena izango dute, salbu eta hastapen ikastaroek; azken hauek, kasu bakoitzean zehaztutako iraupena izango dute.

19. artikulua. Taldea

Talde guztiek, nahi eta nahi ez, begirale edo entrenatzaile eginkizunak betetzen dituen pertsona bat izan beharko dute. Gomendagarria da haren ardurapean dauden kirolariak ez izatea 25 baino gehiago, irabazteko xederik gabeko entitateen kasuan, eta 15 baino gehiago, toki erakundeen kasuan.

Aurretik esandakoa gorabehera, parte-hartzaileen ratioa egokitu egingo da une bakoitzean ezarritako osasun eskakizunetara, edo Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen Sailak ezarritako eginbeharretara.

20. artikulua. Asteko lanaldia

Kirol hastapenetako jarduera hauetan izena eman duten ikasleek (hastapen ikastaroetan eta mendiko aisia-jardueran izan ezik) kirol modalitate bakoitzean gutxienez asteko bi lan saio egin beharko dituzte, bakoitza gutxienez 45 minutukoa. Halaber, ezin izango dira hiru saio baino gehiago egin astean.

21. artikulua. Joan-etorriak

Gasteiztik kanpoan antolatutako eskoletako igeriketa kanpaina eta herri kirolen edo euskal pilotaren topaketak egiteko behar diren joan-etorrietarako garraioa, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen Sailak jarriko du, aurretiaz toki erakunde antolatzaileak eskaera eginda.

22. artikulua. Erantzukizunak hartzea

Parte hartzen duten entitateek bere gain hartzen dute erantzukizuna indarrean den araudia betetzeaz.

BIGARREN ATALA
ALDATUTAKO LEHIAKETAK
(ARABAKO ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK)

23. artikulua. Kontzeptua

Aldatutako lehiaketak dira eskema selektibo huts batetik kanpo egiten direnak, haiek hezkuntza eta jolas izaera nabarmenaz pentsatuz, parte-hartzaileen kopuruaren aldetik inolako mugarik jarri gabe. Jarduera horiek arautzean ikasle guztiek hainbat kirol modu ziklikoan ezagutu eta ezagutzeko eskubidea izatea bermatzeko ahalegina egiten da.

Jarduera horiek benjaminen, kimuen, haurren eta kadeteen kategorietako eskola ikasleentzat izango dira, eta Arabako Eskolarteko Kirol Jokoen izena izango dute.

Partaide kopuru nahikoa badago eta kategoria desberdinetara egokitzen badira garatuko dira.

Ekipo edota kirolari kopuru nahikoa ez badago, lurralde historiko mugakideetako edota beste autonomia erkidego batzuetako eskola lehiaketan parte hartzea baimendu ahalko da.

24. artikulua. Parte hartzen duten ikasleak

Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartu ahal izango dute Arabako Lurralde Historikoan dauden, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren aitortzea duten eta derrigorrezko hezkuntzari dagokion urratseko irakaskuntza ofiziala ematen duten ikastegietako edozeinetan matrikulatutako ikasleak.

Salbuespeneko moduan, kirol arloko eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du beste lurralde historiko edo autonomia erkidego batzuetatik etorritako talde edo kirolariek parte hartzeko.

25. artikulua. Entitate parte-hartzaileak

1. Ikastegiek berek zuzenean eman dezakete izena, edo berekin lotura duten irabazteko xederik gabeko entitateen bitartez, denak ere legez eratuak badira. Dagokion lotura dokumentua eskatuko da.

Dauzkaten parte-hartzaileen kopurua nahikoa ez bada talde bat osatzeko, beste ikastegi batekin edo batzuekin elkartu ahal izango dira, hurbiltasun geografikoagatik, parte hartzea posible egiteko.

2. Irabazteko xederik gabeko entitateak (kirol taldeak, klubak, elkarteak, federazioak, kirol fundazioak, etab.), baldin eta behar bezala eratuta eta Eusko Jaurlaritzaren sail egokietan erregistratuta badaude eta egoitza Arabako Lurralde Historikoan badute, izen-ematea egin ahal izango dute. Horretarako, baimen eskaerari buruzko betebeharrak guztiak bete beharko dituzte, foru agindu honen 50. artikuluan eta VII. tituluko bigarren atalean xedatutakoaren arabera.

26. artikulua. Lehiaketa baldintza orokorrak

1. Entitate laguntzaileek "Lehiaketako arautegiak" egin ahal izango dituzte, bai eta "Lehiaketako egutegiak" ere. Horiek, eskola kirolaren web orrialdean emango dira argitaratu.

Deitutako kirol modalitate bakoitzeko araudi zehatzen arabera parte hartuko da kategoria desberdinetako jardueretan.

Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak orokorrak ez diren egunak eta egutegiak baimendu ahal izango ditu jarduera jakin batzuetarako, horien berezitasunen arabera.

2. Izena eman duten ikasleek kirol modalitate bakoitzean gutxienez asteko bi lan saio egin beharko dituzte, bakoitza gutxienez 45 minutukoa. Lehiaketako saioak ez dira lan saio gisa hartuko.

3. Urtero, kirol arloan eskumena duen sailak balioudunak ez diren egunen egutegia ezarriko du. Balioudunak ez diren egun horietako batzuetan lehiaketak sartzea baimendu ahal izango da, inguruabar bereziak daudenean.

27. artikulua. Benjaminen kategorian parte hartzen duten ikasleak

Urtero, kategoria horretan egongo diren ikasleen jaioturteak ezarriko dira.

Jarduerak egiteko egutegia tokiko edo eskualdeko izaera nabarmenarekin prestatuko da, nahiz eta lurraldearen errealitateari erreparatuta lurralde esparruan aldatutako lehiaketak konfiguratu ahal izango diren. Kategoria honen ezaugarriak ikusita, ez da sailkapenik egingo, eta ez da finalik jokatu. Horrenbestez, ez da inolako garaikurrik banatuko.

Kategoria honetako egutegietan baimendutako gehieneko lehiaketa egun kopurua kirol modalitate bakoitzeko lehiaketa araudi zehatzetan jasoko da.

Kategoriarako berriazko egutegia kirol arloan eskumena duen sailak ezarriko du urtero.

Lehiaketa garatzean, kategoria bakarra izango da, hau da, mutikoen, nesken edo ekipo mistoen artean ez da desberdintasunik egongo; hala, lehiaketarako taldeak finkatzerakoan osaera ez da kontuan hartuko.

28. artikulua. Kimuen kategorian parte hartzen duten ikasleak

Urtero, kategoria horretan egongo diren ikasleen jaioturteak ezarriko dira.

Lehiaketa jarduerak tokikoak, eskualdekoak edo lurralde mailakoak izan ahalko dira. Ondorengo faseetara (baldin badaude) sartzeko postuak zehazteko lehiaketa sistema ezarriko da, kirol modalitate bakoitzean Arabako ekipo txapelduna izendatu ahal izateko.

Kategoriarako berriazko egutegia kirol arloko eskumena duen sailak ezarriko du urtero.

Gehienez ere, banakako sailkapeneko lehenengo hiru postuei eta talde modalitateetako lehenengo bi postuei emango zaizkie garaikurrak, azken fasean, neskatoen zein mutikoen kategorietan.

29. artikulua. Haurren kategorian parte hartzen duten ikasleak

Urtero, kategoria horretan egongo diren ikasleen jaioturteak ezarriko dira.

Lehiaketa jarduerak tokikoak, eskualdekoak edo lurralde mailakoak izan ahalko dira. Ondorengo faseetara (baldin badaude) sartzeko postuak zehazteko lehiaketa sistema ezarriko da, kirol modalitate bakoitzean Arabako ekipo txapelduna izendatu ahal izateko eta Euskadiko eskola jokoetara sarbidea zehaztu ahal izateko, Arabako Lurralde Historikoaren ordezkari gisa, baita Eusko Jaurlaritzak deitutako kirol modalitateetan ere.

Euskadiko eskolarteko jokoetan Arabako Lurralde Historikoaren ordezkari izatea Euskadiko eskolarteko jokoetan parte hartzeko baldintza eta araudietan ezarriko da, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak joko horietarako emango dituenak joko horietan integratutako kirol modalitate bakoitzari dagokionez.

Kategoriarako berriazko egutegia kirol arloko eskumena duen sailak ezarriko du urtero.

Gehienez, banakako sailkapeneko lehenengo hiru postuei eta talde modalitateetako lehenengo bi postuei emango zaizkie garaikurrak, azken fasean, neskatoen zein mutikoen kategorietan.

30. artikulua. Kadeteen kategorian parte hartzen duten ikasleak

Urtero, kategoria horretan egongo diren ikasleen jaioturteak ezarriko dira.

Lehiaketa jarduerak tokikoak, eskualdekoak edo lurralde mailakoak izan ahalko dira. Ondorengo faseetara (baldin badaude) sartzeko postuak zehazteko lehiaketa sistema ezarriko da, kirol modalitate bakoitzean Arabako ekipo txapelduna izendatu ahal izateko.

Kategoria honetako egutegietako gutxieneko eta gehieneko lehiaketa egun kopurua kirol modalitate bakoitzeko lehiaketa araudi zehatzetan jasoko da.

Kategoriarako berriarazko egutegia kirol arloko eskumena duen sailak ezarriko du urtero.

Gehienez, banakako sailkapeneko lehenengo hiru postuei eta talde modalitateetako lehenengo bi postuei emango zaizkie garaikurrak, azken fasean, neskatoen zein mutikoen kategorietan.

31. artikulua. Denboraldien hasiera eta amaiera egunak

Lehiaketak ezingo dira hasi kirol arloan eskumena duen sailak urtero ezartzen dituen egunak baino lehenago, ez eta haiez gero bukatu ere.

Hala ere, egoera berezietan, esandako sailak baimena eman ahal izango du data horiek aldatzeko.

32. artikulua. Lehiaketako baldintzak

1. Instalazioak eta materiala.

Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartu nahi duen talde edota ekipo orok, oro har, kasuan kasuko kirol modalitaterako joko zelai egokia eta jarduera horretarako arauz ezarritako materiala jarri beharko ditu. Horrelakorik ez badauka, entitate laguntzaileari jakinaraziko dio, eta entitate horrek bat ipiniko du haren esku.

Oro har, ekipo eta partaideek joko baliabide propioak eraman beharko dituzte.

Instalazio edo material berezia behar duten kirol modalitate edo espezialitateetan (atletismoa, igeriketa, etab.), jarduera horiek antolatzen dituen entitate laguntzaileak izango du hura kudeatzeko ardura.

2. Arbitrajeak eta epaileak.

Arbitraje lanak "etxean" jokatzeko duen ekipo edota taldeak egin beharko ditu; bestela, kasuan kasuko entitate laguntzaileak jarriko du.

Arbitraje eta kontrol sistema, kirol arloan eskumena duen sailak kirol modalitate bakoitzerako onetsitako lehiaketa araudi egokiaren bidez ezarriko da.

Arbitro/epaileek, kirol bakoitzeko arauak eta araudiak betearazteko funtzioa izateaz gain, lan pedagogikoa ere egingo dute, eskola kiroleko programaren "kirol aisialdiko" espiritua lortze aldera.

Arbitro eta epaileek ikuskatu eta egiaztatu behar dute kirolari moduan parte hartzen duen edozeinek dagokion eskola kiroleko lizentzia pertsonalizatua daukala (baliagarria euskarri elektronikoko/digitalean nahiz euskarri fisikoan/paperean).

3. Parte-hartzaileen jantziak.

Arabako eskolarteko kirol jokoetako kategoria eta kirol espezialitate edo modalitateetako lehiaketa guztietan, parte-hartzaileek uniforme egokia jantzi beharko dute.

Jantzietan propaganda eramatekotan, ezingo da, inolaz ere, alkohol edarien, tabakoaren edo adin horretan komeni ez diren jardueren propaganda soinean eraman, eta Drogamenpekotasunen inguruko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legean alkohol edarien eta tabakoaren publizitateari buruz xedatutakoa errespetatuko da.

Taldean jantzietan kolore berdinak izatea jardueraren garapenean nahasgarri gerta badaiten, "bisitari" moduan jokatzeko duen taldeak aldatu beharko ditu jantziak, baldin eta, gutxienez 24 ordu lehenago, kolore berdinak izatearen jakinarazpena hartu badu. Bestela, etxeko ekipoak aldatu beharko ditu jantziak.

4. Emaitzak jakinaraztea.

Partida edo lehiaketa jokatu eta hurrengo lehenengo egun balioduneko 20:00ak baino lehen jakinaraziko zaizkio emaitzak entitate laguntzaileari, edo bestela, kirol modalitate bakoitzaren arautegian ezarritakoa egingo da.

5. Lehiaketa egutegien aldaketak.

Ezinbesteko kausengatik baino ezingo da aldatu lehiaketak egitea. Hala gertatzen denean, kasuan kasuko entitate laguntzaileari idatziz eskatu behar zaio, behar besteko aurrerapenez, aurkariaren adostasuna ere frogatuz eta partida zein egunetan, ordutan eta tokitan jokatu den zehaztuz.

Arau horietako atalen bat betetzen ez bada, diziplina arautegiko ez agertzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

Egun aldaketak eragiten dituen gastuak (joan-etorriak, instalazioak, etab.) aldaketa eskatu duen taldeak ordaindu beharko ditu.

6. Lizentzien aurkezpena.

Parte hartzen duten talde edo ekipo guztiek, partida bakoitza jokatzen hasi baino lehen, eskola kiroleko lizentzia aurkeztu beharko dute (baliagarria bai euskarri elektronikodigitalean bai euskarri fisikoan/paperean), behar bezala izapideturik eta jokalarien argazki berriekin. Ordezkariek edo entrenatzaileek egiaztatu behar dute fitxa guztiak legezkoak direla eta agertu diren ikasleen fitxak direla.

Parte-hartzaileak ez badauka fitxa legezkoa, eskola kiroleko programan jasotzen diren mota guztietako onurak galduko ditu.

7. Lehiaketa egunak eta orduak.

Larunbat goiza ezartzen da, lehentasunez, talde lehiaketak egiteko. Aurretik esandakoa gorabehera, aipatutako lehiaketak asteburu guztian zehar egiteko aukera uzten da, aurretiaz eskaera eginda eta kirol arloko eskumena duen sailak baimena emanda.

Herri batetik besterako joan-etorriak beharrezkoak diren talde lehiaketetan, urtero ezartzen diren ordu tarteetan jokatu beharko dira partidak.

Banakako jarduerak larunbat goizetan edo arratsaldeetan nahiz igande goizetan joki daitezke. Jarduerak igande arratsaldeetan egiteko, kirol arloan eskumena duen sailak emandako baimena eduki beharko da.

Hori gorabehera, entitate laguntzaileek egindako eskaerei erantzunez, eta betiere kirol arloan eskumena duen sailak aurretiaz idatzizko baimena emanda, Arabako eskolarteko kirol jokoetako zenbait lehiaketa aurretik adierazitako egunetatik edo jardunaldietatik kanpo jokatu ahal izango dira.

8. Bateriaezintasunak.

Areto futbola, 8ko futbola eta 11ko futbola modalitate bakar gisa hartuko dira; hortaz, kirolari batek ezingo du horietako batean baino gehiagotan parte hartu.

Era berean, eskola kiroleko kanpainan parte hartzen duten ikasleek, beharrezkoa den eskola kiroleko lizentzia badaukate, ezingo dute federazioaren lizentzia eduki kirol modalitate bererako edo antzeko baterako, kirol arloko eskumena duen sailak aurretik baimena eman ez badu.

9. Ordezkaririk.

Ekipo edo talde bakoitzak ordezkaririk bat izendatu ahal izango du, adin nagusikoa, lehiari parte hartzen duten ikasleen jarduketaren arduraduna izan dadin. Hark dokumentazioa aurkeztuko du, eta ekipo edo taldeko kideek zuzen jokatzeko zainduko du une oro.

10. Diziplina-arautegia.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, kirolaren arloan honako hauek daukate diziplina ezartzeko eskumena, bakoitzak bere esparruaren barruan:

– Lehen auzialdian, Arabako eskolarteko kirol jokoan antolamendu teknikoa gauzatzeko ardura duen entitate laguntzailearen diziplina batzordeak.

– Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Haren ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta errekursoa jarri ahal izango da haren aurka, aplikatzekoak diren jurisdikzio araei jarraituz.

Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak antolatutako eskola kiroleko programa osatzen duten jardueretan aplikatuko den diziplina araubidea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan (Eskola Kiroleko Lehiaketan Diziplina Araubideari Buruzkoa) xedatutakoari lotuko zaio.

11. Euskadiko eskola jokoetako ordezkariak.

Eskatutako baldintza guztiak bete eta Arabako eskolarteko kirol jokoetarako izena emanda, partaidetzako ibilbideko lehiaketan barruan hobekien sailkatuta gertatu diren entitateek ordezkariak dute Arabako Lurralde Historikoa dagozkien kirol modalitate edo/eta diziplinetan, eta deialdian ezartzen diren kategorietan, guztira parte hartzen duten entitateak kontuan hartu gabe.

III. TITULUA

ERRENDIMENDUAREN HASTAPENETAKO IBILBIDEKO JARDUERAK

33. artikulua. Kontzeptua

Errendimenduaren hastapenetako ibilbidearen helburua da eskola ikasleei aukera ematea, hala nahi badute, hasteko errendimendua eta kirol helburuak gainditzea xede dituen kirol praktika batean.

Goi-errendimenduko kirolean emakumeen presentzia gizonezkoena baino askoz txikiago da. Horrengatik, alde hori murrizteko modu bat da eskola urratsean neskak errendimenduko kirol jardunari lotzea mutilen neurri berdinean. Neskak lehiaketetan parte hartzeko interesa galduz doaz adinean aurrera joan ahala. Hori dela eta, garrantzi handikoa da ibilbide honen erakargarritasuna nabarmentzeko ahaleginak indartzea, bai eta baliabideak eta kirol zerbitzuak (entrenamendu eta lehiaketa ordutegiak, hornidurak, kirol instalazioak, arbitroak, etab.) berdintasunez banatzea ere, haien partaidetzarako pizgarriak ez kentzeko moduan.

LEHENENGO ATALA

DETEKZIO ETA TEKNIFIKAZIO JARDUERAK

34. artikulua. Helburua

Teknifikazio jardueren helburua da errendimenduko kirola egiteko gaitasuna duten eskola ikasleen hobekuntza tekniko, taktiko eta fisikoa lortzea. Alde horretatik, uztartu egiten dituzte kirol partaidetzako ibilbidearen jarduerak eta eskola ikasleak kirol errendimenduan hasteko jarduerak.

Horren ondorioz, atal honetan bi maila jasotzen dira: lehenengo eta behin, kirol modalitate bakoitzerako, garatu behar dira hartan jarduteko gaitasun handiena duten ikasleak aukeratzeko bide ematen duten detekzio prozesuak.

Behin hautaketa eginda, saio tekniko edo entrenamendu espezifikokoak egingo dira, partaideen adinari egokituta eta kirol trebetasunak –alderdi teknikoak, taktikoak, eta fisikoak– hobetzera zuzenduta.

35. artikulua. Parte hartzeko arau orokorrak

1. Detekzioa.

Detekzio prozesuak errendimendu jarduerak hasi aurreko urtean edo bi urteetan gauzatu dira.

Detekzio jarduera hauekin hasteko gutxieneko adina kimuen kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da.

Federazioetako langile teknikoen ardura izango da eskola ikasleen errendimenduko kirola egiteko dituzten gaitasunak neurtzeko behar diren irizpideak eta probak ezartzea.

2. Kirol teknifikazioa.

Modalitate bakoitzerako finkatzen diren detekzio prozeduren bidez hautatzen diren ikasleei zuzenduta dago, aurreko puntuan adierazitakoaren arabera.

Kirol teknifikazioko jarduera hauekin hasteko gutxienerako adina kimuen kategoriako bigarren urteari dagokiona izango da.

Federazioetako langileek egin eta finkatuko dituzte jardueren edukiak. Federazioetako egituren bidez garatuko dira.

Jarduerak eskolaz kanpoko ordutegian egingo dira, eta ez dute eraginik izango eskolako gainerako kirol jardueren garapenean. Kontuan hartuko dira horiek finkatzean joan-etorrietarako behar den denbora, eta abar.

3. Administrazio arauak.

Teknikazioaren ardura duten federazioak, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmenak izenpetuta dauzkatenak izango dira. Detekzioaren ardura duten federazio teknikariek, lehiaketa jardueretan parte hartzen duten eskola ikasleen ikastegiei jakinaraziko diete zein aukeratu duten teknifikazio jardueretan parte hartzeko.

Haietan parte hartzeko, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak emandako kirol lizentzia eduki beharko da.

BIGARREN ATALA

ERRENDIMENDUAREN HASTAPENETAKO LEHIAKETA JARDUERAK

36. artikulua. Helburua

Errendimenduaren hastapenetako lehiaketak dira eskola ikasleei aukera ematen dietenak errendimendua eta kirol helburuak gaituzte xede dituen kirolean hasteko.

Errendimenduaren hastapenetako lehiaketetan hasteko gutxienerako adina kimuen kategoriako bigarren urteari dagokiona izango da.

Edonola ere, gutxienerako adin hori betez betiere, kirol modalitate bakoitzean hasteko adina kasuan kasuko kirol federazioarekin batera finkatuko da.

Oro har, modalitate bakoitzean, gehienez ere, jaiotzte bakoitzari dagokion populazio guztia ehuneko 15ek parte hartuko du.

Modalitate eta maila bakoitzean finkatuko dira, kasuan kasuko kirol federazioarekin bat etorritik, aipatutako lehiaketak egituratzeko oinarritzko irizpideak; jardueretarako laguntza teknikorako lankidetzak hitzarmenetan jasoko dira.

37. artikulua. Lehiaketa baldintza orokorrak

1. Entitate laguntzaileek "Lehiaketako arautegiak" egin ahal izango dituzte, bai eta "Lehiaketako egutegiak" ere. Horiek, eskola kirolaren web orrialdean emango dira argitaratu.

Deitutako kirol modalitate bakoitzeko araudi zehatzen arabera parte hartuko da kategoria desberdinetako jardueretan.

2. Izena eman duten ikasleek kirol modalitate bakoitzean gutxienez asteko bi lan saio egin beharko dituzte, bakoitza gutxienez 60 minutukoa. Lehiaketako saioak ez dira lan saio gisa hartuko.

Ez dira hartzen egun balioduntzat urtero erabakitzen direnak.

Hala ere, egoera berezietan, kirolaren arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du baliodun ez diren egun horietako batean lehiaketak jartzeko.

3. Eskola ikasleek errendimenduaren hastapenetako lehiaketetan parte hartzea, bestalde, modalitate bakoitzerako finkatzen diren baldintzak betetzen dituzten kirol klub eta taldeen bidez bideratuko da.

Kasu guztietan, berriz, kirol klub edo taldeek beren ekipoak osatzen dituztenak matrikulatuta dauden ikastegiei jakinarazi beharko diete zer harreman daukaten haiek klubarekin edo taldearekin.

4. Ahal den guztietan, lehiaketak itxiak izango dira, hau da, ez da igotzeko ez jaisteko loturarik izango errendimenduaren hastapenetako ibilbideetako lehiaketaren eta modalitateko partaidetza ibilbidearen artean. Hala ere, ez badago ekipo nahikorik errendimenduaren hastapenetako lehiaketa eratzeko, kirol arloan eskumena duen sailak lotura hori baimendu ahal izango du lehiaketaren barruan faseak eratuz.

Lehiaketa horietan parte hartzen duten klubek gonbidatuta parte hartuko dute, hau da, Arabako Foru Aldundiak eta modalitatearen lurraldeko kirol federazioak gonbidatuta.

Parte hartzen duten ekipoen kopurua aurretik finkatuko dute lurralde federazioak eta Arabako Foru Aldundiak, kontuan izanda mailan sartuta dagoen populazio eskolatua, modalitateko kirol lizentzia kopurua eta Arabako Lurralde Historikoan dauden klubaren kopurua. Ekipoen banaketa lurraldean ikasleen banaketaren proportzioan izateko ahalegina egingo da.

5. Oro har, lehiaketa horietan parte hartu nahi duten kirol klubek edo elkarteek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Arabako kasuan kasuko kirol federazioko kide izatea.
- Ekipoak edukitzea hurrenez hurrengo mailetan.
- Ekipoaren ardura duten langile teknikoek dagokien kirol titulazioa daukatela egiaztatzea, modalitate bakoitzerako ezarrita dagoena.
- Jarduera eskola kirolari buruzko araudiak xedatutakoari egokitzea.
- Ez egitea detekzio jarduerarik kimuen mailan eta beheragokoetan, salbu programa honetan jasotzen diren teknifikazio jarduerak.

Aipatutako betekizunak betetzen ez dituen klubek batek idatziz eskatzen badu errendimenduaren hastapenetako lehiaketetan parte hartzea, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak parte hartzeko baimena eman ahal izango dio, betiere baldintza bereziak gertatzen badira eta betiere eskaeran hala arrazoitzen badira.

Beste alde batetik, ez badute betetzen eskola kirolari buruzko egungo arautegiak lehiaketa jardueren antolaketari edo parte hartzeari buruz xedatutakoa, errendimenduaren hastapenetako lehiaketetatik kanpo geratuko dira.

6. Banakako kirolearako, kasuan kasuko federazioko batzorde teknikoak eta Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen saileko zerbitzu teknikoek adostuko dituzte errendimenduaren hastapenetako lehiaketen jardueretan parte hartzeko irizpideak.

7. Edonola ere, errendimenduaren hastapenetako lehiaketetan parte hartzea murriztua izango da, eskola ikasle bakoitzaren kirol proiektzioaren irizpideetan eta lehiaketarekiko jarreran oinarrituta.

8. Errendimenduaren hastapenetako lehiaketetan parte hartzen dutenek adinaren arabera dagokien mailan hartuko dute parte. Kirol heldutasunaren prozesu naturalak gordetzekotan, oro har ez da mailaz aldatzen utziko. Betiere, arrazoi tekniko, mediko eta hezkuntzakoak daude nean, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak, salbuespen moduan, mailaz aldatzeko bana-banako baimenak eman ahal izango ditu.

9. Haurren mailatik aurrera, errendimenduaren hastapenetako lehiaketetan parte hartzen dutenek ezin izango dute aldi berean parterik hartu lehiaketa horietan eta kirol mota bereko partaidetza lehiaketetan. Horri dagokionez, futbola eta areto futbola modalitate bera direla ulertuko da.

10. Behin lehiaketa hasita, ezin izango da jokalarien inskripzioa ekipo batetik bestera aldatu.

38. artikulua. Denboraldiaren hasiera eta amaiera egunak

Denboraldiaren hasiera eta amaiera egunak urtero ezarriko dira.

Hala ere, egoera berezietan, kirol arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du data horiek aldatzeko.

39. artikulua. Instalazioak eta materiala

Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartu nahi duen talde edo ekipo orok, oro har, kasuan kasuko kirol modalitaterako joko zelai egokia eta jarduera horretarako arauz ezarritako materiala jarri beharko ditu. Horrelakorik ez badauka, entitate laguntzaileari jakinaraziko dio, eta entitate horrek bat ipiniko du haren esku.

Oro har, ekipo eta partaideek joko baliabide propioak eraman beharko dituzte.

Instalazio edo material berezia behar duten kirol modalitate edo espezialitateetan (atletismoa, igeriketa, etab.), jarduera horiek antolatzen dituen entitate laguntzaileak izango du hura kudeatzeko ardura.

40. artikulua. Arbitrajea eta epaileak

Arbitraje lanak "etxean" jokatzeko duen ekipo edota taldeak egin beharko ditu; bestela, kasuan kasuko entitate laguntzaileak jarriko du.

Arbitraje eta kontrol sistema, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak kirol modalitate bakoitzerako onetsitako lehiaketa araudi egokiaren bidez ezarriko da.

Arbitro eta epaileek ikuskatu eta egiaztatu behar dute kirolari moduan parte hartzen duen edozeinek dagokion eskola kiroleko lizentzia pertsonalizatua daukela (baliagarria euskarri elektronikoko/digitalean nahiz euskarri fisikoan/paperean), argazki berri batekin.

41. artikulua. Parte-hartzaileen jantziak

Arabako eskolarteko kirol jokoetako kategoria eta kirol espezialitate edo modalitateetako lehiaketa guztietan, parte-hartzaileek uniforme egokia jantzi beharko dute.

Jantzietan propaganda eramatekotan, ezingo da, inolaz ere, alkohol edariaren, tabakoaren edo eskola ikasleen adinean komeri ez diren jardueren propaganda soinean eraman, eta errespetatu beharko da Drogamenpekotasunen inguruko Prebentzio, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legean alkohol edariaren eta tabakoaren publizitateari buruz xedatutakoa.

Taldeen jantzietan kolore berdinak izatea jardueraren garapenean nahasgarri gerta badaiten, "bisitari" moduan jokatzeko duen taldeak aldatu beharko ditu jantziak, baldin eta, gutxienez 24 ordu lehenago, kolore berdinak izatearen jakinarazpena hartu badu. Bestela, etxeko ekipoak aldatu beharko ditu jantziak.

42. artikulua. Emaitzak jakinaraztea

Partida edo lehiaketa jokatu eta hurrengo lehenengo egun baliaduneko 20:00ak baino lehen jakinaraziko zaizkio emaitzak entitate laguntzaileari, edo bestela, kirol modalitate bakoitzaren arautegian ezarritakoa egingo da.

43. artikulua. Lehiaketa egutegien aldaketak

Ezinbesteko kausengatik baino ezingo da aldatu lehiaketak egitea. Hala gertatzen denean, kasuan kasuko entitate laguntzaileari idatziz eskatu behar zaio, behar besteko aurrerapenez, aurkariaren adostasuna ere frogatuz eta partida zein egunetan, orduetan eta tokitan jokatu den zehaztuz.

Arau horietako atalen bat betetzen ez bada, diziplina arautegiko ez agertzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

Egun aldaketak eragiten dituen gastuak (joan-etorriak, instalazioak, etab.) aldaketa eskatu duen taldeak ordaindu beharko ditu.

44. artikulua. Lizentzien aurkezpena

Parte hartzen duten talde edo ekipo guztiek, partida bakoitza jokatzen hasi baino lehen, uneko denboraldiko eskola kiroleko lizentzia aurkeztu beharko dute (baliagarria bai euskarri elektronikiko/digitalean bai euskarri fisikoan/paperean), behar bezala izapideturik eta argazki berriekin. Ordezkariek edo entrenatzaileek egiaztatu behar dute fitxa guztiak legezkoak direla eta agertu diren ikasleen fitxak direla.

Parte-hartzaileak ez badauka fitxa legezztatua, dagokion kanpainako eskola kiroleko programan jasotzen diren mota guztietako onurak galduko ditu.

45. artikulua. Lehiaketa egunak eta orduak

Larunbat goiza ezartzen da, lehentasunez, talde lehiaketak egiteko. Aurretik esandakoa gorabehera, aipatutako lehiaketak asteburu guztian zehar egiteko aukera uzten da, aurretiaz eskaera eginda eta kirol arloko eskumena duen sailak baimena emanda.

Herrien arteko joan-etorriak beharrezkoak diren talde lehiaketetan, urtero ezartzen diren ordu tarteetan jokatu beharko dira partidak.

Banakako kirolak larunbat goizean edo arratsaldean nahiz igande goizean joki daitezke. Jarduerak igande arratsaldean egiteko, kirol arloan eskumena duen sailak emandako baimena eduki beharko da.

Hori gorabehera, entitate laguntzaileek egindako eskaerei erantzunez, eta betiere kirol arloko eskumena duen sailak aurretiaz idatzizko baimena emanda, Arabako eskolarteko kirol jokoetako zenbait lehiaketa aurretik adierazitako egunetatik edo jardunaldietatik kanpo jokatu ahal izango dira.

46. artikulua. Bateriaezintasunak

Era berean, eskola kiroleko kanpainan parte hartzen duten ikasleek, beharrezkoa den eskola kiroleko lizentzia badaukate, ezingo dute federazioaren lizentzia eduki kirol modalitate bererako edo antzeko baterako, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak aurretik baimena eman ez badu.

47. artikulua. Ordezkariek

Ekipo edo talde bakoitzak ordezkarik bat izendatu ahal izango du, adin nagusikoa, lehiaketa parte hartzen duten pertsonen jarduketaren arduraduna izan dadin. Honek dokumentazioa aurkeztuko du, eta taldeak edo ekipoak zuzen jokatzea zainduko du une oro.

48. artikulua. Diziplina-arautegia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek daukate kirolaren arloko diziplina-ahalmena, bakoitzak bere esparruaren barruan:

a) Lehen auzialdian, Arabako eskolarteko kirol jokoaren antolamendu teknikoaren gauzatzeko ardura duen entitate laguntzailearen diziplina batzordeak.

b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Haren ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta errekurtsioa jarri ahal izango da haren aurka, aplikatzekoak diren jurisdikzio arauak jarraituz.

Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak antolatutako eskola kiroleko programa osatzen duten jardueretan aplikatuko den diziplina araubidea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan (Eskola Kiroleko Lehiaketan Diziplina Araubideari buruzkoa) xedatutakoari lotuko zaio.

49. artikulua. Euskadiko eskola jokoetan errendimenduaren hastapenetako ibilbidean ordezkatzeari

Arabako eskolarteko kirol jokoetan izena eman eta eskatutako baldintza guztiak bete ondoren, partaidetza ibilbideko lehiaketetan hobekien sailkatuta geratu diren entitateek ordezkatzeko dute Arabako Lurralde Historikoa joko horietan, dagozkien kirol modalitate edo/eta espezialitateetan, deialdian ezartzen diren kategorietan, entitate partaide guztiak kontuan hartu gabe.

IV. TITULUA

ESKOLA KIROLEKO KANPAINARAKO IZENA EMATEA

50. artikulua. Izena ematea

Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko kanpainan parte hartu nahi duten entitate guztiak izena eman beharko dute Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailean, ondoren zehazten diren izapideak eta eginbeharrak betetz:

1. Entitatearen izen-ematea.

Lehenbiziko aldiz Arabako eskola kiroleko programarako izena eman nahi duen entitate orok eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bitartez egin beharko du: <http://www.araba.eus/DeporteEscolar>. Horretarako, eskatutako datuak eman beharko ditu, eta eskatzen zaizkion agiriak erantsi. Izena emateko garaian, entitateak ezagutu eta onartu beharko ditu eskola kiroleko programa kudeatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna denez bera behartzen duten hizpaketak.

Aplikazioan datuak emateak ez du inolako baliorik izango izen-ematea formalizatzeko, ondoren ez bazaizkio eranstean jarduera bakoitzerako eskatzen diren agiri gehigarriak.

Halaber, hasiera batean emandako datuetan egiten den edozein aldaketa edo zuzenketa, eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bitartez baieztatu beharko da.

Entitatearen inskripzio orria, beranduenez ere, ekipoak parte hartu nahi duen kirol modalitatean (edo kirol modalitateetan) izena emateko azken egunean aurkeztu behar da.

Entitatearen izen-ematea izapidetu eta gero, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak entitate hori aktibatuko du kanpainako beharrezko izapide guztiak egin ahal izan ditzan eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bitartez.

2. Taldeak edo ekipoak edozein jardueratarako inskribatzea.

Izen-ematea onartu zaien entitate guztiak kirol talde edo ekipoak inskribatu beharko dituzte eskola kirolaren aplikazio informatikoan.

Parte hartzen duten pertsonak (jokalariak, entrenatzaileak, ordezkariak edo epaileak), lehenbiziko aldiz izena ematen badute, parte-hartzaileen inskripzio orria bete eta ondoko agiri hauek erantsi beharko dituzte:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia (nahitaezkoa, 14 urte bete eta gero), famili liburua-rena (NANA ez edukitzekotan), edo nortasuna egiaztatzen duten bestelako agiriak (erroldatze ziurtagiria, egoitza txartela, etab.).

2. Argazki berria.

3. Datu pertsonalen babesaren inguruko baimena, foru agindu honetako 9. artikuluan adierazten dena.

Parte hartzen duten entitateek izena emateko formularioetako datuak sartuko dituzte eskola kirolaren aplikazioan eta formulario horiek gordeko dituzte, beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketa neurriak hartuz, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak ezarritako denboraz. Zerbitzu horrek jatorrizko agiriak eskatu ahal izango dizkio entitate parte-hartzaileari edozein unetan.

3. Arabako eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko lizentziak.

Inskripzioa Internet bidez izapidetu eta kirol arloan eskumena duen sailak balioztatu ondoren, banakako lizentzia egingo da. Eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bitartez lortuko da, formatu elektronikoko/digitalean.

Entitateek lizentziak formatu digitalean lortu ahal izango dituzte, gailu elektronikoen bitartez, edo paperezko formatuan, inprimaketa bidez. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak ez ditu inola ere eskuratuko haiek.

Jokalariek, entrenatzaileek, ordezkariak eta epaileek dagokien lizentzia eduki beharko dute, indarrean dagoen eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko akreditatuko dituenak. Lizentzia bat emango da parte-hartzaile bakoitzak izena eman duen kirol modalitate bakoitzeko.

Lizentzia hori nahitaez aurkeztu beharko da, bai euskarri elektronikoko/digitalean bai euskarri fisikoan/paperean, kirolari bakoitzak parte hartzen duen mota guztietako lehiaketa ofizialetan.

Entitate arduradunak kirolarien gurasoak edo tutoreak informatu beharko ditu haiek inskribatu diren entitate eta jardueraren ezaugarriei buruz, baita aseguru estalduraren sistemari buruz ere, eta orobat parte-hartzailearen osasun egoera delako kirolean aritzeko egokia izateaz arduratuko da.

Lizentzia honetan, nahitaezkoa da parte hartzen duenaren argazkia izatea.

4. Aurkeztutako datuak baliozkotzea.

Kirol arloan eskumena duen sailean Arabako eskola kiroleko kanpainari buruz izapidetzen diren eskabide eta formulario guztiak interesa duenak izenpetuta egon beharko dira.

5. Kirolarien eta taldeen altak eta bajak.

Urteroko kanpaina bakoitzean parte hartzen duten kirolarien altak eta bajak ikasturte osoan zehar egin ahal izango dira, kirol modalitate bakoitzerako ezarritako epearen barruan erregistratu diren ekipoen barruan.

V. TITULUA ENTITATE LAGUNTZAILEEN PARTAIDETZA

51. artikulua. Xedea

Eskola kiroleko programan egin behar diren jarduerak garatzeko estaldura teknikoa eman ahal izateko, kirol, teknika eta prestakuntza antolaketaren arloetan esperientzia egiaztatua daukaten irabazteko xederik gabeko entitateen laguntza edukiko da.

Helburu horrekin, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak eta aipatutako entitate laguntzaile horiek kirol modalitate bakoitzeko lehiaketa araudiak gertatuko dituzte.

Jardueretarako laguntza teknikotzat hartzen da jardueraren alderdi tekniko guztien jarraipenean, koordinazioan eta zuzendaritzan aritzea.

Lehiaketa jardueretan, laguntza teknikoan edo haien kontrol teknikoan, iritziko da aipatutako laguntzaren barruan daudela honako hauek: egutegiak eta jardunaldiak gertatzea, arbitroak izendatzea eta kontrolatzea, aktak jasotzea, egutegiak eta sailkapenak gertatzea eta zabaltzea, eta kirol arloko diziplina-araubidea aplikatzea lehiaketako batzordearen bitartez.

Gainerako jardueretan, laguntza teknikoak honako hauek bilduko ditu: irakaskuntzako, kirolari baliotsuen detekzioko eta teknifikazioko programak diseinatu eta gertatzea, eta haiek gauzatzea.

52. artikulua. Barne hartutako entitateak

Entitate laguntzaile izango dira Arabako lurraldeko kirol federazioak eta, hori ezinezkoa bada, Arabako Foru Aldundiaren organo eskudunek izendatutako klubak.

53. artikulua. Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartzeko baldintzak

Kirol federazioen edo bestelako kirol entitateen eraketa eta funtzionamendua arautzen duen indarreko araudiak xedatzen duena betetzeko eta betearazteko konpromisoa hartzen dute entitate laguntzaileek, beren eskumenen esparruan.

Era berean, honekin zerikusia duten kirol federazioek hitza eman beharko dute ez dutela emango ez izapidetuko benjamin aurreko, benjamin, kimu edo haurren kategorietarako lizentziarik, ez emango eskola kiroleko programan sartuta ez dauden jarduerak antolatzeke edo horrelakoetan parte hartzeko baimenik, babesik edo homologaziorik, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren idatzizko berariazko baimenik gabe.

Lankidetzaz zein kirol modalitateko hitzartu den, entitate laguntzailea kirol modalitate horren garapen teknikoaren arduraduna izango da. Kirol arloan eskumena duen sailaren idatzizko onarpena izango du lankidetzaz horrek.

Bereziki, entitate laguntzaileak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Hitzartutako kirol modalitateko laguntza teknikoaren arduraduna izendatzea. Hark bere gain hartuko du jarduera guztien koordinazioa, eta Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailarekiko etengabeko solaskidea izango da.

b) Lehiaketako egutegiak egitea, ebazpen honetako bigarren tituluko bigarren atalean ezarritakoarekin bat etorritik. Egutegi horiek lehiaketa hasi baino lehen onetsi beharko dira.

c) Lehiaketaren aldietako bakoitzean, jardunaldiak programatzea, lehiaketetako aktak jasotzea eta sailkapenak egitea, baita partaideei behar duten informazioa ematea ere.

Lehiaketak ezinbestekoa denean baino ezingo dira aldatu, eta horrelakoetan, kirol modalitate bakoitzaren berariazko arautegian adierazitakoa aplikatuko da.

d) Lehiaketaren jarraipena egitea eta sortzen diren gorabeheren berri ematea kirol arloan eskumena duen sailari.

e) Lehiaketa jarduerak irabazteko xederik gabeko entitateekin lankidetzaz antolatzea, hori dela eta bete beharreko baldintza zehatzen arabera.

f) Lehiaketak egiteko behar diren epaileak eta arbitroak izendatzea. Prestakuntza ekintzak ezartzen ahaleginduko da entitate laguntzailea, Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartzen duten ikastegietako eta irabazteko xederik gabeko entitateetako kideen artean epaile-arbitroak izendatu ahal izateko.

Pertsona horiek arduratuko dira zuzendu behar dituzten kirol neurketetan parte hartzen duten guztiek dabilen denboraldiko lizentzia aurkez dezaten neurketa bakoitza hasi aurretik.

g) Instalazio edo material berezia behar duten jarduerak (atletismoa, igeriketa, etab.) kudeatzea, holakoak antolatuz gero.

h) Kirol arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan aritzea joan-etorrien kontuan, foru agindu honetako VI. tituluan ezarritakoarekin bat etorritz.

i) Lankidetzan diharduten kirol modalitate bererako Arabako eskolarteko kirol jokoez kanpo antolatzen diren proba, lehiaketa edota jarduera guztietan, kirol arloan eskumena duen sailarekin batean jardutea, bere eskumeneko eremuetan egokiak diren neurriak hartzea, jarduera horiek eskola kirolaren eduki eta helburuekin bat etor daitezzen.

j) Lehen auzialdian diziplina-eginkizuna betetzea eskola kirolerako "lehiaketa batzorde" espezifikokoaren bitartez.

Zigor proposamenaren berri emango zaio Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailari eta ez da eraginkorra izango hark berresten duen arte.

k) Teknikariak, epaileak eta arbitroak inskribatzea haiek eskola kiroleko programa egokian sartzeko, Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoa betez.

54. artikulua. Teknikazio jarduerak

Entitate laguntzaileek eskola kiroleko kanpainan inskribatutako kirolarien teknikazio jarduerak egin ahal izango dituzte.

Haien finantzaketa jasota egon behar da Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailarekin izenpetu beharreko lankidetzaren hitzarmenean.

55. artikulua. Hastapen ikastaroak

Entitate laguntzaileen ardura izango da hastapen ikastaroak egitea ikastaroari dagokion kirol modalitatean izena eman gabeko eskola ikasleentzat, eta hedatu eta erabat ezagutarazi behar diren kirol modalitateetarako.

Ikastaro hauek Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailarekin izenpetu beharreko lankidetzaren hitzarmen egokiaren bidez formalizatuko dira, eta haietan beren finantzaketa araubidea jasoko da.

56. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Interesa duen entitateak adierazi beharko du Arabako eskolarteko kirol jokoetan, teknikazio jardueretan eta hastapen unitateetan lankidetzan aritzeko asmoa, kanpaina bakoitzaren plangintza proiektu labur baten bidez, eta proiektu horretan azaldu beharko ditu egingo diren jarduerak eta haien aurrekontua.

Gainera, eskola kirolaren programa behar bezala egiteko interesa izan lezakeela irizten zaion informazio guttia eman dezake.

Parte-hartzaileen jarduerari buruzko beste datu osagarri batzuk eskatu ahal izango dira.

Beharrezkotzat jotzen bada, proiekturen batean, materiala erostea, aurrekontu zehatza ere aurkeztu beharko da, enpresa hornitzaileak edo etxe komertzialak behar bezala konpliturik.

Egindako eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, kirol arloko eskumena duen sailak interesa duten entitateei hamar eguneko epea emango die akatsak zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, beren eskaerari uko egin diotela irizita.

57. artikulua. Lankidetzaren hitzarmenak

Lankidetzan jasotako hizpaketa guztiak jaso beharko dira Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak eta entitate laguntzaile bakoitzak izenpetu beharreko banakako hitzarmen batean, Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 15. artikuluko 5. puntuan ezarritakoaren babesean.

Aipatutako hitzarmenak federazio bakoitzaren jarduerak hasi baino lehenago formalizatu beharko dira, eta haietan gutxienez alderdi hauek jasoko dira:

- Elkarri informazioa emateko eta elkarrekiko koordinaziorako hitzarmena.
- Entitate laguntzaileek laguntza teknikoa ematerakoan beteko dituzten eginkizunak.
- Garatu beharreko kirol programak.
- Arabako Foru Aldundiak lankidetzeta horren ordainetan egin beharreko ekarpenen zenbatekoak.

VI. TITULUA

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEEN JOAN-ETORRIAK

58. artikulua. Arabako eskolarteko kirol jokoetako neurketa edo partidak jokatzeko joan-etorriak, kirol arloan eskumena duen sailak jarritako garraiobideen bitartez

Esandako kanpainarako izena eman duten eta egoitza lurralde horretan duten irabazteko xederik gabeko entitateek Arabako eskolarteko kirol jokoetako neurketa edo partidak jokatzeko joan-etorriak egin behar diren gutzietan, ondoko arauak jarraituko zaie:

1. Bidaiarien kopuruak autobusa kontratatzeke egokiera ematen badu, garraiobide hau jarriko da interesdunen esku, horretarako ezarritako aurrekontu mugen barruan. Garraioa esleitzeko, gutxienez 10 pertsona beharko dira.

Talde guztiek, zerbitzu hau erabili ahal izateko, apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen duen arduradun bat izan behar dute, dekretu horretan eskola garraioaren eta adingabekoen garraioaren segurtasunerako baldintzak ezarri baitira. Batez ere, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Dabilen kanpainako eskola kirolerako lizentzia edukitzea.
- Adinez nagusia izatea.

Ezingo da inola ere erabili kirol arloko eskumena duen sailak jarritako autobus zerbitzua, hartan ez badago aurretik adierazi den arduraduna.

2. Interesa duten entitateek eskaera egin beharko dute (bat talde bakoitzeko) eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bitartez lehiaketa jardunaldiaren aurreko asteazkeneko 8:00ak baino lehen, garraiobide horren erabilera eskatuz. Entitate bakoitzak aplikazio horren bidez eskatzen diren datuak eman beharko ditu, eta egindako eskaerari dagokion guztia baieztatzea egiaztatu (irteera ordua, lekua, helduera lekua...), artikuluko honetako 5. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Behin garraiorako aste bakoitzeko esleipena argitaratu ondoren, salbuespenez eta modu arrazoituz baino ez dira onartuko aldaketak eta baliogabetzeak.

Entitate batek, joan-etorrietarako autobusa eskatu eta gero, erabakitzen badu, alde aurretik jakinarazi gabe edo behar besteko epean jakinarazi gabe, ez duela erabiliko kontrataturiko autobusa, edo ezin badu erabili artikuluko honetako 1. apartatuan adierazitako laguntzailea ez edukitzeagatik, antolakundeak denboraldi osoan jartzen dituen beste garraiobideetatik bazter utzi ahal izango dira..

4. Entitate batek, aurretik jakinarazi gabe, programatutako jarduera bat ezin gauzatzea eragiten badu, eta ekipo bisitariak, jarduera horretan, eskatutako garraiobidea erabili badu, orduan antolatzaileek emandako beste garraiobiderik gabe gera daiteke dabilen denboraldi osorako.

5. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak eskari guztiak jaso eta gero, sail horrek autobusak esleitzeko dizkie taldeei. Baieztaturiko esleipenak posta elektronikoz bidaliko zaizkie bai entitate bakoitzari bai federazio bakoitzari. Halaber, entitate bakoitzak informazio hori kontsultatu ahal izango du eskola kirolaren aplikazio informatikoan.

59. artikulua. Arabako eskolarteko kirol jokoetako neurketa edo partidak jokatzeko joan-etorriak, Arabako Foru Aldundiak jarri ez dituen garraio bideen bitartez

Arabako kirol jokoetan parte hartzen duen entitate batek garraio zerbitzua eskatu badu eta, joan-etorria edo ibilbidea egin behar duten pertsonen kopuruagatik nahiz ordutegien batezbestekotasunarengatik edo bestelako arrazoiengatik, ezezkoa ematen bazaio, beste garraio bide batzuek baliatuz egin ahal izango du joan-etorria.

60. artikulua. Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartzen duten ekipo edo taldeen kirol hastapenetako jarduerak, hastapen ikastaroak, teknifikazio jarduerak eta entrenamenduek eragiten dituzten joan-etorriak

Esandako kanpainarako izena eman duten eta egoitza lurralde horretan duten irabazteko xederik gabeko entitateek Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartzen duten ekipo edo taldeen hastapen jarduerak, hastapen ikastaroak, teknifikazio jarduerak eta entrenamenduek egiteko joan-etorriak egin behar diren guztietan, ondoko arauak jarraituko zaie:

1. Bidaiarien kopuruak autobusa kontratatzeke egokiera ematen badu, garraio bide hau jarriko da interesa dutenen esku, horretarako ezarritako aurrekontu mugen barruan.

Entitate batek, eskola kiroleko programaren barruan dagoen edozein jarduerak egiteko – Arabako eskolarteko kirol jokoetan parte hartzen duten ekipo edo taldeen entrenamenduek barne– bere inguruko hainbat herritako ikasleekin egin behar baditu joan-etorriak, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak ematen duen inprimakia behar bezala bete egin beharko du eskaera.

2. Eskaera bakarra egingo da ikasturte osorako.

Bertan, datu hauek azaldu behar dira, zehatz-mehatz jasota: ibilbidea, geldialdia egin beharreko herriak, herri bakoitzean jaso edota utzi beharreko pertsona kopurua, eta eskaera behar bezala kudeatzeko behar diren datu guztiak.

Talde guztiek, zerbitzu hau erabili ahal izateko, apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen duen arduradun bat izan behar dute, dekretu horretan eskola garraioaren eta adingabekoen garraioaren segurtasunerako baldintzak ezarri baitira. Batez ere, arduradun horrek baldintza hauek bete behar ditu:

- Dabilen kanpainako eskola kirolerako lizentzia edukitzea.
- Adinez nagusia izatea.

Ezingo da inola ere erabili kirol arloan eskumena duen sailak jarritako autobus zerbitzu hori, hartan ez badago adierazi den arduraduna.

Kirol arloan eskumena duen sailak ez du bere gain hartuko eskatu eta berak kudeatu ez duen kontratazio batek sortutako faktura.

3. Entitate batek, joan-etorrietarako autobusa eskatu eta gero, erabakitzen badu, aldez aurretik jakinarazi gabe edo behar besteko epean jakinarazi gabe, ez duela erabiliko kontratatutako autobusa, edo ezin badu erabili aurretik aipatutako laguntzaile hori ez edukitzeagatik, antolakundeak denboraldian jartzen dituen beste garraio bideetatik bazter utzi ahal izango dira.

61. artikulua. Programatik kanpo utzitako joan-etorriak

Ondoko joan-etorri hauek ez dira izapidetuko:

- a) Herri baten barruan egiten direnak.
- b) 7 km baino gutxiagora dauden herrien artean egiten direnak.

c) Arabako Lurralde Historikotik kanpoko entitateek egiten dituztenak, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren baimena badute ere eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko.

VII. TITULUA
BAIMENAK EMATEKO PROZEDURA*LEHENENGO ATALA*
ESKOLA ADINEKO KIROLARIENTZAKO KIROL JARDUERAK,
ESKOLA KIROLEKO PROGRAMAREN BARRUAN EZ DAUDENAK,
*ANTOLATZEKO ETA HAIETAN PARTE HARTZEKO BAIMENAK***62. artikulua. Eskaerak**

Eskola kiroleko programaren barruan ez dauden eskola kiroleko lehiaketak antolatzeko eta haietan parte hartzeko baimenak Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailari aurkeztu beharko zaizkio.

Eskabideak ez baditu betetzen 69. artikuluan adierazten diren baldintzak, edo eskabidearen punturen bat argitu edo justifikatu behar bada, eskabidea aurkeztu duenari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa konpontzeko edo eskatutako agiriak edo argibideak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

63. artikulua. Agiriak

Aipatutako baimenak eskuratu nahi dituztenek ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Baimen eskaera, behar bezala beteta, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak emango duen ereduaren arabera, edo eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bidez, eskola kiroleko kanpainan aktibatuta dauden entitateentzat.

b) Baimena emateko arrazoien azalpena –bereziki, jarduerak egokitzen direla honako hauetan jasotako arau eta printzipioetara: 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua, Eskola Kirolari buruzkoa, eta denboraldi bakoitzeko eskola kiroleko jardueren programa.

c) Lehiaketetan parte hartuko duten eskola ikasleen zerrenda eta egitekoa den jardueraren ezaugarriak (lekua, egunak, ordutegia, iraupena, medikuen kontrola, osasun laguntzarako ase-guruak eta abar).

d) Erantzukizun zibila estaltzen duen aseguru poliza. Jarduerak antolatzeko bakarrik beharko da.

e) Intereseko beste datu batzuk.

BIGARREN ATALA
*BAIMENAK EMATEA***64. artikulua. Eskola-kirolariek lehiaketa ofizialean adinez dagokienaren hurrengo goragoko kategorian parte hartzeko baimenak**

Adinari dagokionaren hurrengo goragoko kategorian parte hartu ahal izango da, aurretik idatzizko eskaera eginda Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailari, baldin eta eskakizun hauek betetzen badira:

a) Norberaren kategoriari dagozkion urteetako azkenekoan jaiotakoa izatea.

b) Ekipoan aritzeko kirol modalitatea izatea.

c) Beheragoko kategoriako inskribatuen kopurua ez izatea talde edo ekipoko kide guztien ehuneko 50 baino gehiagokoa.

d) Kirol modalitate horretan maila bat beheragoko kategorია ere deialdian sartuta egotea.

e) Adinez dagokiona baino goragoko kategorian parte hartzeko legezko arduradunaren edo adingabearen baimen idatzia izatea, jardun horrek berekin dakartzan arriskuen erantzukizuna bere gain hartuz.

f) Ziurtagiri mediko bat aurkeztea, non adierazten den kirolariak gaitasuna duela azaltzen den kirol jarduna, eskatzen duen kategorian, egiteko.

Kirol modalitate baten barruan goragoko kategorian batean parte hartzen duen ikasleak ez du galduko bere adinari dagokion kategorian beste kirol modalitate batzuetan aritzeko aukera; hala ere, behin lehiaketa hasi eta gero, ezin izango du parte hartu kirol modalitate horretan bertan bere adinari dagokion kategorian.

Benjaminen 2. urteko futbolearen eta kimuen 2. urteko futbolearen ez da onartzen adinez dagokienaren hurrengo goragoko kategorian parte hartzea, modalitate horiek bakar-bakarrik urte horietan jaiotako kirolarientzat direlako.

65. artikulua. Eskola-kirolariek lehiaketa ofizialean adinez dagokienaren hurrengo beheragoko kategorian parte hartzeko baimenak

Adinari dagokienaren hurrengo beheragoko kategorian parte hartu ahal izango da, aurretik idatzizko eskaera eginda Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailari, baldin eta eskakizun hauek betetzen badira:

a) Goragoko kategoriako kirolarien partaidetza eskatzea eragin duten beharrezkoen azalpen labur bat, idatziz, aurkeztu beharra.

b) Parte hartu nahi den kategoriari dagokion urtearen aurrekoan jaioa izatea.

c) Ekipoan jokatzeko kirol modalitatea izatea.

d) Ondoko baldintza hauek betetzeko konpromisoa hartzea, idatziz:

- Baimendutako jokalariek guztiek jokatzeko emandako denboreko batura ezin daiteke izan partidaren iraupen osoaren ehuneko 50 baino gehiago.

- Ekipo berean goragoko kategoriako jokalariek parte hartzeko baimen bat baino gehiago badago, haiek ezin dezakete aldi berean jokatu.

Eskaerak aztertu ondoren, kirol arloan eskumena duen sailak baimendu edo ukatuko ditu eskatutako aldaketak.

Benjaminen 2. urteko futbolearen eta kimuen 2. urteko futbolearen ez da onartzen adinez dagokienaren hurrengo beheragoko kategorian parte hartzea, modalitate horiek bakar-bakarrik urte horietan jaiotako kirolarientzat direlako.

66. artikulua. Eskola-kirolariek matrikulatuta dauden ikastegiak bestelako kirol entitateetako taldeetan parte hartzeko baimenak, bi entitateek inskribatzekotan

Baldin eta kirolari bat kirol entitate batek eta bere ikastegiak inskribatu nahi badute modalitate eta kategorian berean, ikastegiak izango du lehentasuna kirolaria inskribatzeko. Holako kasuetan, kirolaria bere ikastegia ez den kirol entitatearen batekoa izango bada, kirol entitate horrek ikastegiari kasuan kasuko baimena eskatu beharko dio eta Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailean aurkeztu beharko du.

67. artikulua. Elkartuta kirol jarduerak egiten dituzten kirol entitateek parte hartzea

Kontuan izanik Arabako biztanleria sakabanaturik dagoela eta ikastegi batzuetan oso matrikula gutxi egiten dela, kirol arloan eskumena duen sailak, egoera berezia izateagatik hala komeni bada, baimena eman dezake hainbat ikastegitako kirolariek osatutako taldeek edo ekipoek parte hartzeko.

Diren inguruabar berezien azalpena eduki beharko du eskaerak, eta kasu horretan ikastegizat hartuko dira.

68. artikulua. Federazio lizentziak izapidetzeko eskaera

1. Arabako kirol federazioek ezingo dute izapidetu ez eman federazio lizentziarik dabilen denboraldiko hurrengo 2. urteko kategoriari dagokion jaioturretaz gero jaiotako ikasleentzat, salbu eta, aurretiaz eskaera eginda, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren baimen espresua lortzen badute hartarako.

2. Federazio lizentziak izapidetzeko baimena eskatzeko eskumena duten entitateak, Arabako federazio egokiak edo federatu beharreko eskola ikasleak inskribatuta dauden irabazteko xederik gabeko elkarteak izango dira.

3. Baimen eskaerarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak emandako inprimaki normalizatu edo eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bitartez lortutako eskaera, eskola kiroleko kanpainan aktibatuta dauden entitateen kasuan.

– Federatuko diren kirolarien zerrenda (izena, deiturak eta jaioteguna).

– Federazio lizentziak izapidetzearen egokitasuna frogatzen duten bestelako agiri batzuk.

4. Honako hauek izango dira baimena emateko jarraituko zaien irizpideak:

– Zer eragozpen dagoen eskola kiroleko lehiaketa bat Arabako Lurralde Historikoan edo beste lurralde historiko batzuetan egiteko.

– Kirolariaren kirol proiektzioa.

– Aplikatu beharreko arautegiaren arabera eskola kirola gidatzen duten printzipioekin bat datorren parte-hartzea bultzatzea: 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena; 125/2008 Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kirolari eta Eskola Kiroleko Programei buruzkoa.

– Bateragarriak diren Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko lehiaketak eta goi mailako lehiaketetan parte hartzea.

– Eskola Kiroleko Euskal Batzordean hartutako erabakiak.

5. Federazio lizentziak zer denboralditarako eman diren, hartarako izango dira baliodunak.

6. Eskaera eredu normalizatuaren arabera egin beharko da, atal guztiak behar bezala beteta.

7. Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoko erkidean aurkeztu daitezke (https://web.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun?inheritRedirect=true&redirect=%2Fc%2Fportal%2Flayout%3Fp_l_id%3D225150%26p_v_l_s_g_id%3D0%26start%3D96). Horrek ez du eragozten urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 16.4 artikuluan xedatutakoa. Halaber, eskaera horiek eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bidez ere izapidetu daitezke: <https://www.araba.eus/DeporteEscolar/Account/Login?ReturnUrl=%2fDeporteEscolar%2f>.

8. Behin federazio lizentzia izapidetzeko baimena eman ondoren, kirolarietara emango zaie denboraldi horretako eskola kiroleko kanpainan, baimen horren xede den kirol modalitatean.

9. Kontuan izanda zein den zenbait kirol modalitatearen benetako egoera, kirol arloan eskumena duen sailak, salbuespenez, baimena eman ahal izango du aldi berean eskola lizentzia eta federazio lizentzia izateko.

HIRUGARREN ATALA BAIMEN EMAKIDAREN EBAZPENA

69. artikulua. Ebazpena

1. Baimenez arduratzea eta haiek ematea Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularrari dagokio. Baimen horiek zein denboraldirako eskatu diren, hartarako izango dira baliodunak.

2. Titulu honetako lehenengo atalean adierazten diren baimen eskaerak, parte hartu nahi den jarduerak egin baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztu beharko dira, salbu eta, aparteko inguruabarrengatik, arrazoizkoa bada denbora tarte laburragoaz eskatzea. Beranduenez ere, esandako jarduerak egin baino 5 egun lehenago ebatziko dira.

3. Titulu honetako bigarren atalean adierazten diren baimen eskaerak, parte hartu nahi den jarduerak egin baino gutxienez 10 egun baliodun lehenago aurkeztu beharko dira, salbu eta, aparteko inguruabarrengatik, arrazoizkoa bada denbora tarte laburragoaz eskatzea. Delako jarduera egin baino lehenago ebatziko dira, baldin eta dagozkion agiriak ezarritako epearen barruan aurkeztu badira.

4. Baimenak emateko, beharrezkoa izango da titulu honetako lehenengo edo bigarren ata-lean -dagokionaren arabera- zehazten diren baldintzak betetzea.

5. Kirol arloan eskumena duen sailari eskaera garaiz eta forma egokian aurkeztuta, sailak ebazpena ez badu ematen jarduera egitea aurreikusita dagoen eguna baino lehenago, hartarako baimena eman dela ulertuko da.

70. artikulua. Ez betetzea

Kirol arloan eskumena duen sailak jakinez gero onetsitako programen barruan ez dauden eskola kiroleko lehiaketak egiten ari direla behar den baimena eduki gabe, jarduera horiek berehala bertan behera uztea erabakiko du.

Lehiaketak oraindik ez badira egin, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen saileko zerbitzu teknikoek informazioa eskatu ahal izango dute haiek egiteari buruz eta, hala badagokio, jarduerak baimendu edo ez baimendu erabakiko dute.

Baimena emateko ebazpenean jasotako baldintzak ez badira betetzen, hura ezeztatu ahal izango da.

71. artikulua. Eskola adineko kirolarientzako kirol jardueretan (eskola kiroleko programaren barruan ez daudenetan) parte hartzeko salbuespenak

Kontuan izanda zein irizpideri jarraitu behar zaion baimena lortzeko lehenago Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen alde aurreko txostena behar den kasuetan, ez da izango beharrezkoa baimena eskatzea berariazko araudi bidez urtero ezartzen diren aldietan antolatutako jardueretan parte hartzeko, baldin eta lehiaketa ez bada ofiziala, kasu jakin batzuetan baino ez bada egiten eta ez baditu oztokatzen eskola kiroleko programako jarduerak (hainbat kasu daude; halakoetan entitate batek gonbidapena jasotzen du sailkapenerako balio ez duen proba/lehiaketa batean parte hartzeko, normalean udan).

AZKEN XEDAPENAK

Primera.- Eskuordetzea.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 94. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, kirol arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrari eskuordetzen zaizkio foru agindu honek kirol arloan eskumena duen sailaren titularrari ematen dizkion eskumenak, baimenei eta baimen bereziei dagokienez.

Bigarrena.- Indarrean jartzea.

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 19a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ